

Liburuak

KRITIKA

Basamortua.
J.M.G. Le Clézio. Itzulpena: Luis Berrizbeitia.
Elkar.
419 orrialde. 25,25 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Zein da basamortuago?

JEAN-MARIE GUSTAVE LE CLÉZIOK (Niza, 1940), “nouveau roman” korrante frantsesaren ildotik ekin zion ibilbide literarioari. Mugimendu experimentalistaren garaia besarkatzen duten hasierako eleberriek, hiriko garapen teknologikoak irensten hasia zuen gizaki garaikidearekiko kezka helarazten dute. Baina 1969. urtetik aurrera, bestelako bizimodu, kultura eta espazioetara ihes egin nahiak, aire berriak ekarri zizkion haren obrari.

Idazleak, mundu desberdinen arteko talka kulturalak aurkeztu ditu *Basamortua* izeneko lanean. Luis Berrizbeitia idazle, poeta eta itzultzaileak Jokin Zaitegi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2008ko Nobel Saridunaren eleberria euskaratzeagatik.

Bere obran nagusitzen diren konstanteak topatzen ditugu *Basamortuan*: haurren protagonismoa eta espazio puruagoen bilaketa. Haurrak, eguzkiaren sartu-irtenak edota animaliak bezala, naturaren sinbologiaren osagai dira; zibilizazioak kutsatu gabeko izaki aratzak. Era berean, basamortua zorionaren eremuan kokatzen da. Gizakiak naturarekin bat egiteko espazio idiliko baten antzera deskribatzen zaigu (“Egunak beti berdina dira hemen, Cité-an, batzuetan ez baitakizu zein egunetan bizi zaren ere”, 108. orrialdean). Baina utopiaren planteamenduetan jausteko arriskua duen mistizismoaren xinpletasuna gaingidituz, txanpon bera osatzen duten bi aurpegiak erakusten zaizkigu: naturaren indarrak ederrak eta bitalak izanik ere, batzuetan gordinak eta bortitzak dira (“Cité honek daukan gauza bitxia da mundu guztia dela oso pobrea eta halere inor ez dela kexatzen sekula”, 84. orrialdean).

Ipar Afrikan, basamortuko bazter zehaztugabe batean, Marokoko konkista garaian frantsesen aurka borrokatu zuten gerlari urdinen leinuko neskato bat bizi da. Lallak, Hartani artzainarekin, zerumuga hautseztatuari so, suaren inguruan Aammak kontatzen dizkion istorioak adituz, igarotzen ditu egunak. Baina, “Uda hasierako goiz batean sartu zen gizona Aammaren etxera” (185. orrialdean), eta momentu hartatik aurrera ekingo dio Lallak Europarako bideari.

Bidaia, *descensus ad inferos* motiboaren berri ematen du: kanpoko espazioaren deskripzioa, Lallaren barne munduaren ispilu bilakatzen da. Marseillea “bada hustasunaren beldurra, gabeziarena, gosearena...” (267. orrialdean), basamortua eta herrialde kolonizatzailearen eredu. Idazleak, ustezko herrialde zibilizatu eta aurreratuan, ikusezin bilakatzen den esklaboen arteko bizitzaren koadroa eskaintzen du, garapenaren arraildura ezkutuez hausnartu dezagun. Izan ere askotan, formak eta edukiak ez datoz bat. ■



Irlanda, ‘Erlea’ aldizkariko gai nagusi

Bernardo Atxaga zuzendari duen *Erlea* aldizkari literarioak bigarren zenbakia publikatu zuen aurtengo martxoan. Lehenengoan AEBetako mendebalde basatia izan zen protagonista eta oraingoan Irlanda da gai nagusia. Paddy Woodworth arduratu da gai hori jorratzeaz. Berriz ere luxuzko kolaboratzailek osatu dute *Erlea*,



Erlea 2.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia.
128 orrialde.
11,40 euro.

tartean Harkaitz Cano, Iban Zaldia, Koldo Izagirre, Aurelia Arkotxa, Jimu Iturralde, Aritz Galarraga, Aingeru Epaltza, Miel A. Elustondo, Mari Jose Olaziregi eta Beñat Sarasola. Duela gutxi zendutako Joxemiel Bidador ere oroitu dute, Patxi Huarte Zaldi *Eroaren* marrazki baten laguntzaz. ■

Marco Polo, etxeko txikienentzat

Txertoa argitaletxeak *Nor da?* izeneko sailean ematen ditu argitara etxeko txikienentzat beren-beregi prestaturiko biografiak. Marco Polorena, besteak beste. Sara Cordónek idatzi eta Martin Ansok euskaratutako lan hau bederatzi urtetik hamabira bitarteko gazteei zuzendua dago, eta abenturazale veneziarren bizitza modu atsegin eta hezitzailean kontatzea du helburu. Horretarako, liburuko testua ilustrazio koloretsuz jantzita aurkeztu dute, eta liburuaren bukaeran irakurritako edukiei buruzko galderak daude eskura, nahi duenak erantzun ditzan. *Marco Polo abenturazalea* liburuari esker munduaren ekialdera bidaiatzeko aukera izango dute gainera irakurleek, fantasiaz eta exotismo inguraturik. ■



Marco Polo abenturazalea.
Sara Cordon.
Txertoa.
124 orrialde. 9,45 euro.